

SARRERA

Batzar Nagusietako lehendakari anderea, Ahalduen Nagusia, Foru Diputatu jaun-andereak, batzarkide jaun-andereak eta osoko bilkura honetara hurbildu zireten guztiei, egun on.

Nire lehendabiziko hitzak Gipuzkoako herritarrei erreferentzia eginez hasi nahi ditut. BILDU bozkatu duten ala bozkatu ez duten herritarrei, guztiei, erreferentzia eginez. Hauei zuzendu nahi natzaie; lehendabiziko unetik, Batzar Nagusietako gaurko nire hitzen hartzaile nagusiak Gipuzkoako emakume eta gizonak izatea nahi baitut.

Herritarrak izan dira protagonista maiatzaren 22ko foru eta udal hauteskundeetan. BILDUren kasuan gainera, herritarrak hain zuzen izan dira protagonista nagusiak gure jaiotzatik. Gure apustua, erronka ere esango nuke, argia da beraz: Herritarrak dira edo gara, gure politikaren ardatz eta horrela izaten jarraituko dute. Nuestra apuesta, nuestro reto es claro: la ciudadanía es el eje de nuestra políticas y lo seguirá siendo.

Gaurkoa gainera guretzat egun berezia da, Batzar Nagusi hauek aldaketa sakon baten lekuko izatekoar baitaude. Aldaketa honen protagonista nagusia izan dena, Gipuzkoako herria, aldaketaren lekuko nagusi bilakatzea baita nire nahia. Batzar Nagusietako pareta hauen artean, askotan, ahantzi egin izan da Gipuzkoako herritarren ordezkari gunea direla Batzar Nagusiak; horregatik zuzenduko natzaie lehendabiziko unetik herritarrei aurreratu honetatik.

Gaurko diskurtso honetan, lau atal garatuko ditut:

1. Lehendabizikoa, hauteskondeek Gipuzkoan eta Euskal Herrian utzi duten argazki orokorraren hausnarketa egin nahi dut; eta, honekin batera argazki honetatik BILDUK ateratako ondorioak azalduko ditut.
2. Bigarrena, gure lurraldean etorkizunari ateak irekitzeko, hau da aro politiko berriari ateak zabaltzeko, gure ustez lehentasunezkoak diren gobernu politiken aurkezpena burutu nahi dut.
3. Hirugarrena, Gipuzkoa eraikitzeko Foru Aldunditik garatuko ditugun politiken berri eman nahi dut.
4. Laugarrena, BILDUK Gipuzkoako Foru Aldundia gobernatuz gero, gobernu lanak nola burutu nahi dituen azaldu nahi dut.

HAUTESKUNDEEK GIPUZKOAN ETA EUSKAL HERRIAN UTZI DUTEN ARGAZKI OROKORRA

Bildu eta hauteskundeak

Maiatzaren 22ko udal eta foru hauteskundeak testuinguru politiko eta sozial esanguratsu batean eman dira. Gatazkaren konponbidean eta normalizazio politikoaren norabidean urrats erabakiorrak eman, jendartearen politikarekiko asperdura eta aldaketaren beharra eta politika egiteko modu berri eta

ezberdinen eskaera zabaldu, herritarren parte hartzea aldarrikatuz eta herritarrak kontutan hartuko dituen politikak egiteko aldarriak ozenago entzun diren testuinguru.

Eskaera eta helburu horiei guztiei erantzunez eta horiei erantzuteko konpromiso sortzen da Bildu. Herritarren artean bakea eta normalizazio politikoari erantzuteko asmoz eta borondatez, bestelako politikak egiteko grinaz, herritarrekin konpartituz eta herritarrak gure politikaren ardatz bihurtuz, herritarrek eginiko aldaketa politiko eta sozialaren aldarrikapena geure eginez eta indarrak metatuz herritarrengana hurbildu gara.

Politika herritarrekin egiteko bokazioz sortu da Bildu, egun Euskal Herriko jendartearen dauden galdera mardulei erantzuteko gogoz, eta bide horretan elkarlanerako ariketa burutu dugu Bildu osatzen dugunok, herritarrekin partekatuz gure asmo, kezka, proposamen eta helburuak.

Bilduren ibilbidea

Ez da, ordea, erraza izan, indar metaketatik haratago, traba eta oztopo ugari bizi izan ditugu, hauteskunde hauetan parte hartu ahal izateko zalantzaraino. Gure diferentziak onartzea eta aitortzea, ikuspegiak konpartitzea eta adostasunak bilatzea izan dira gure “hoja de ruta” ilusio berri hau sujeto elektoral batean gorpuzteko eta noski programa politiko amankomun bat herritarrentzat eta herritarrekin osatzea.

Halere, eta gure konpromisoa aipatu helburuekin argia izanik ere, ilegalizazioaren mehatxua gainean izan dugu, “lupa” etengabe gainean. Baina horren gainetik, maiatzaren 5eko bizipen kolektiboak, Arenalean bizi izan genuen eta aldarrikapen hutsetik haratago herri baten sentimendu eta nahiaren adierazle izan zenak, maiatzaren 22an izan zuen bere goren puntua.

Askok esan digute hauteskunde kanpaina eginga izan dugula. Espainiako Epaitegi konstituzionalaren ebazpena eta honek hauteskunde kanpainan izandako oihartzun mediatikoa emaitzetan erabakiorrak izan direla. Hau esaten dutenak ez dira Euskal Herrian eta Gipuzkoan martxan den sakoneko aldaketaren dimentsioaz jabetzen.

Garai politiko bat bukatu da. Horrela esan digu euskal jendarteak. Garai berri batean sartu da hortaz Euskal Herria, Euskal Herriarekin batera Gipuzkoa bera ere, bete betean sartu da garai berri batean.

Aukera politiko bat sortu da Euskal Herrian, gatazka politikoari aterabidea emateko aukera jorratu du BILDUK eta horrela ikusi eta errekonozitu du euskal jendarteak.

Baina hauteskunde hauen argazkia zertzelada gehiagoz aberas liteke. Gure azterketa ez baita soilik mugatzen, oso garrantzitsua izanik ere, bakearen eta normalizazioaren eremu horretara.

Maiatzaren 22ko emaitzak

Indar metaketa

Bildu esperientzia politiko berria da, alderdi ezberdinez harago, jada egun 315.000 euskal herritar baino gehiagok babestu duten koalizio da. Hauteskunde kanpainan BILDU familia handi bat zela esan genuen, gero eta handiagoa izateko bokazioa duen familia handia da egun ere. Koalizioa osatzen dugunon artean, ezberdinen artean beraz, gure herriaren edo lurraldearen diagnosia eta akordioak burutu ditugu, egiturazkoa dena eta osagarria denaren artean ezberdinduz, horrela akordioetara iristeko gaitasuna soberan erakutsi dugu.

Eta hori da euskal jendarteak saritu duena, ezberdinen arteko indar metaketa, aldaketa politiko eta sozialaren alde egin dugun apustua eta bakea eta normalizazioaren bidean eman ditugun urratsak. Hori da euskal herritarrek aspalditik eskatzen zutena eta hori da hauteskunde hauetatik esijitzen digutena. Ardura eta erantzukizunez jokatzea eta aritzea eskatu digu euskal jendarteak eta klase politikoaren eta politika egiteko modu jakin bati ateak itxi dizkio.

La ciudadanía de Gipuzkoa demanda acuerdos entre diferentes, acuerdos creíbles y eficaces. Nuestro objetivo serán los acuerdos que busquen la consecución de los sueños y metas de la ciudadanía. Esta opción y apuesta política ha sido premiada en las elecciones.

Aldaketa politikoa

Euskal jendarteak bezala gipuzkoarrek ere aldaketaren aldeko bozka eman zuten egun horretan. Hori da, maiatzaren 22ko gau elektoraletik atera dezakegun ondorio nagusi eta argiena. BILDU Gipuzkoan lehendabiziko indarra izan da, 120.000 bozkarekin izan ere. Gipuzkoako 50 udal baino gehiagotan gobernatzen du BILDU koalizioak. Hori da gipuzkoarrek erabaki dutena, orainarte Gipuzkoan egin den politika modua errotik aldatzea eta gure ardura da eskaera horri bide ematea.

Asperdura

Euskal Herriak eta Gipuzkoak berak eztabaida sakon eta egiturazkoak dauzka parez pare irekiak. Krisi ekonomikoaren enbata handia izan da, eta da egun ere, gure herrian. Gure herrialdearen garapen ereduaren eta lurralde garapenaren gaineko eztabaida sozial eta politikoa ekidin egin izan da, Euskal Herriaren etorkizunaren gaineko eztabaida legez kanporatzeen bidez saihestu nahi izan da. Adibide gehiagorekin jarrai nezake.

Azkeneko urteetan Euskal Herrian zein Gipuzkoan ardura instituzional nagusietan izan diren agintari instituzionalek ez diete eman biderik eztabaida hauei. Esan bezala, alderdien arteko eztabaida birtualak antzeztu izan ohi dira. Hori bihurtu baitute batzuek politika, antzerki hutsa. Gipuzkoako jendarteak harrিতuta eta aspertzeko bidean egoteko arrazoiz beterik dagoelakoan gaude. Alderdi politiko batzuk zentzugabeko eztabaida alderdikoietan, epe motzeko errenten bila eta borroka txikitzen, alderdien interes mugatuen mende ikusteaz harrিতuta dago jendarteak.

Haize freskoa-konpromisoak

Guk bezala, Euskal Herriko eta Gipuzkoako jendartean aspalditik sumatzen genuen errealitate hori. Hori da kanpainan ere sumatu duguna. Asperdura eta harridura horren aurrean BILDUren erabaki politiko, jarrera eta diskurtsoak ilusioa eta itxaropena sortu baitute. Haize freskoa sartu da Euskal Herriko plazara; eta euskal jendarteak babestu egin du apustu hori.

Pasa den hauteskunde kanpainan Gipuzkoako jendartearekin konpromisoak hartu ditugu eta ez diegu konpromiso horiei bizkar emango. Lan politikoa beste modu batean egin dugu, orain lan instituzionala beste modu batean egitera gatoz. En la pasada campaña electoral hemos alcanzado unos compromisos con la ciudadanía de Gipuzkoa, compromisos a los que no vamos a dar la espalda. Hemos realizado el trabajo político de una manera diferente, ahora venimos a hacer el trabajo institucional de una manera diferente.

Baina duda gabe, BILDUK gatazka politikoa gainditu eta bake eta normalizazioa Euskal Herrian eraikitzeke hartu duen konpromisoa determinanteak izan dira hauteskunde hauetan.

BILDU eta berau osatzen dugun alderdi eta kideak protagonista izan gara, azkeneko hilabeteetan Euskal Herrian bake eta normalizazio prozesua ireki eta eraikitzeke urratsetan. Horrela ikusi du Gipuzkoako jendarteak, horrela aitortu eta babestu du ondoren maiatzaren 22ko udal eta foru hauteskundeetan.

Bidea erakutsi digu beraz Euskal Herriko eta Gipuzkoako jendarteak, eta guk, BILDUK, bederen, euskal herritarrek eta gipuzkoarrek esandakoa jaso eta kontuan hartuko dugu. Ere honetan ere, bideak zein izan behar duen jendarteak berak erakutsi digu. Bakea, normalizazioa eta eskubide zibil eta politiko guztiak aitortuak izango diren egoera ireki eta eraikitzeke bidean, jada abiatutako bidean, lan politikoan eta instituzionalean protagonista izaten jarraituko dugu.

Aro historiko bat ixten ari da, garai berri bat irekitzen ari den bitartean. Euskal Herriko eta Gipuzkoako errealitate politikoa aztertzeke aldagai asko zaharkituak gelditzen ari dira, berriak sortzen ari diren bitartean. Laster ez dute balioko orain artean batzuei horren eraginkorrek izan zaizkien diskurtso eta azterketarako eskema askok.

Maiatzaren 22ko emaitzen irakurketa

Gaur hemen, eta laburrean bada ere, maiatzaren 22ko foru eta udal hauteskundeetatik, BILDUK ondorioztatzen dituen hiru elementu jarri nahi ditut mahai gainean:

1. La ciudadanía de Gipuzkoa y Euskal Herria ha pedido un cambio político. Ahora que en los últimos meses se ha abierto una oportunidad para la paz, la normalización y el respeto de todos los derechos civiles y políticos, la ciudadanía nos demanda que todos y todas demos los pasos necesarios para alcanzar estos fines.

2. La ciudadanía de Euskal Herria y Gipuzkoa también ha pedido un cambio social. Cuando la crisis golpea con dureza a la clase trabajadora de Gipuzkoa, cuando en número de personas desempleadas crece, cuando las conquistas sociales son cuestionadas, la ciudadanía nos ha demandado que pongamos a las personas en la primera línea de las políticas públicas.
3. Por último, la ciudadanía de Gipuzkoa ha demandado un cambio institucional. No nos engañemos la pregunta no es cuan lejos están las instituciones de la ciudadanía, la pregunta a mi juicio es, ¿para qué deben servir las instituciones? Las instituciones deben ser una herramienta para cambiar la realidad de nuestro pueblo. Las instituciones deben crear las condiciones materiales necesarias para que las mujeres y hombres de Euskal Herria y Gipuzkoa puedan desarrollar sus proyectos individuales y colectivos. Las instituciones, por lo tanto, deben estar al servicios de la ciudadanía y no al revés.

Gipuzkoako auzo eta herrietan, kaleetan, ikastetxe, unibertsitate eta lantegietan, ilusioa eta itxaropena nabaritzen dugu. Errealitate baten konstatazioa da hau. Aukera berri bat zabaldu dela ulertzen dugu guk, guk bezala Gipuzkoako jendarteak orokorrean horrela ulertzen duela uste dugu. Guztientzako berria izango den garaia. Aukeraz eta zailtasunez bete, ez daukagu zalantzarik. Nik nahiago dut aukerak baliatzea, zailtasunetan gelditzea baino. Garai berriak guztion beharra eskatzen du. Horretarako nire aldetik elkarlan zintzorako konpromiso osoa izango da.

Garai berri bat hasi da eta lan handia daukagu egiteko, etxeko lan handiak ezarri dizkigute-eta Euskal Herriko eta Gipuzkoako gizon eta emakumeek. Hemen gaudenok ezin diogu horri bizkarrik eman. Guk ez diogu ardura horri bizkarrik emango.

BILDU Gipuzkoako politikaren ardatza.

Gipuzkoarrok badaukagu gauzak egiteko modu bat, geure geurea den modua eduki ere. Gipuzkoarrok dinamikoak gara, inizatiba hartzen dugunak, sortzaileak gara. Gipuzkoarrok aberatsa den esperientzia sindikal, kooperatibista eta enpresariala daukagu. Baina era berean aberatsak da ere lurraldearen bizitza sozial, kultural eta hizkuntzaren eremuan ere. Bizia eta dinamikoa den lurraldea da gurea.

2011. urtean sartuta ekinbide sozial eta politiko handia du Gipuzkoak.

Gaur hemen aurkeztera gatozen gobernu ardatzak errealitate horietatik jaiotzen dira.

Maiatzaren 22ko foru eta udal hauteskundeek eta ondorengo udalen osaketa prozesuak datu objektibo batzuk utzi ditu. Zalantzan jarri ezin diren datuak dira hauek.

BILDU Gipuzkoan lehendabiziko indarra izan da, 120.000 bozka baino gehiagorekin izan ere. Gipuzkoako 50 udal baino gehiagotan gobernatzen du BILDU koalizioak.

Gipuzkoak aldaketa eskatu du beraz.

Guk gure konpromisoari eutsiko diogu. Gipuzkoarrek emandako mandatuari erantzutera gatoz. Haien aurrean, Gipuzkoako emakume eta gizonen aurrean, Gipuzkoan etorkizunari ateak zabalduko dizkion garaia inizatibaz betetzera gatoz. Gipuzkoan etorkizunari ateak zabalduko dizkion gobernua osatu eta helburu hori erdiesteko politikak martxan jartzera.

Euskal Herrian ixten ari garen fasea, irekitzen ari garena.

Euskal Herrian garai baten bukaeran gaude. Garai baten bukaerarekin, berri baten hasiera jada hemen da. Iritsi da beraz garai berriaren hasiera eta hau esanda, espresuki ardura politikoz jokatzeko gonbitea luzatu nahi dut.

Eztabaida sakonei eutsi beharko diegu hurrengo hilabete eta urteetan. Herri bezala ariketa kolektiboa burutu beharko dugu hurrengo urteetan. Ez dago denbora galtzeko arrazoirik gure ustez. Denbora galtzea arduragabekeria hutsa delako jada. Beraz, ez dago, gure ustez, iraganekoak diren estrategiak aplikatzeko arrazoirik. Egun bizi dugun une historikoak ez ditu erretroisorearen politikak onartzen. Estatuak eta zenbait alderdi politikok aplikatu duten blokeoaren politikak porrot egin du. 315.000 bozka baino gehiagok adierazten dute hori.

Ez dago beraz denbora gehiago galtzeko arrazoirik, artifiziozko eztabaidetan murgiltzeko arrazoirik, aurkari politikoaren desgastera eta beraz politika txiketara jokatzeko arrazoirik. Horiek iragana dira jada. BILDUren gobernua izango duen Gipuzkoako Foru Aldundia ez da eztabaida birtual eta txiki horietan sartuko. Guk maiuskulekin idazten den politika egin nahi dugulako. Euskal Herriak konponbide sakonak, egiturazkoak behar dituelako.

Hemen gauden guztioi zein Gipuzkoako alderdi politikoetako egiturei dagokie une historikoak eskatzen duen tamainako gogoeta politikoa egitea. Bakoitzak bere kultura eta ikuspegi politikotik abiatuko duena, noski. Baina Euskal Herriko eta Gipuzkoako jendarteak guztioi berbera eskatzen digu: arduraz eta erantzukizunez jokatzuz, etorkizun hobe baten bidean urratsak ematea.

Gure lurraldeko alderdi politiko guztioi dagokigu Euskal Herrian eta Gipuzkoan bizi dugun unearen garrantziaz jabetzea, hauteskunde hauek erakutsi dutena ongi barneratzea eta horren arabera azterketa sakona eta arduratsua, bakoitzak bere eremutik burutzea. Nos corresponde a todos los partidos políticos percatarnos de la importancia del momento que vivimos en Euskal Herria y Gipuzkoa, interiorizar de forma adecuada los resultados de las elecciones y realizar un análisis profundo y responsable, cada uno desde su ámbito.

LEHETASUNEZKO GOBERNU POLITIKAK **GIPUZKOAN ETORKIZUNARI ATEAK IREKITZEKO POLITIKAK**

Gipuzkoako etorkizunari ateak zabaldu. Hurrengo lau urteetarako proiektua

Gipuzkoan.

BILDUK gobernaturako duen Gipuzkoako Foru Aldundiak etorkizunari ateak ireki nahi dizkio, hori da gure erronka nagusia, etorkizunerako oinarriak eraiki behar dira Gipuzkoan.

La Diputación Foral de Gipuzkoa que gobernará Bildu quiere abrir las puertas al futuro, ese es nuestro principal objetivo, queremos liderar la construcción de las bases del futuro en Gipuzkoa.

Eta norbaitek galdetuko du, arrazoi guztiz galdetu ere, zer da etorkizunari ateak irekitzea?

Gipuzkoako emakume eta gizonak gara Gipuzkoa egitearen arduradun. Gu guztiok, Gipuzkoa osatzen dugun herritarrak gara Gipuzkoaren protagonista. PROTAGONISTA nagusiak izan ere. Gure jaioterria, lanbidea edo adina dena delakoa izanda ere, Gipuzkoan bizi garen gizon-emakume guztiak gara lurralde honen etorkizunaren protagonista.

Emakume eta gizon prestatu, dinamiko eta aktiboekin. Kasu askotan, gehienetan esango nuke nik, aukera pertsonal eta kolektibo berrien alde lanean eta borrokan. Proposamenak burutzeko eta eztabaidarako prestatuak, langintza kolektibora ohituak. Protagonista izateko prestatuak beraz eta kasu gehienetan, protagonista izateko borondate irmoarekin.

Gipuzkoako gizon-emakumeen helburu indibidual eta kolektiboak eta hauek erdiesteko beharrezko diren indarrak askatzea da Gipuzkoako Foru Aldundiaren politiken lehen mailako helburua.

Horretarako, Gipuzkoako gizon eta emakumeak politikaren helburuen lehen lerroan jartzeko egiturazkoak diren korapiloak daude egun. Gipuzkoan egiturazkoak bihurtu diren arazo hauek, guretzako jada erronka bihurtu direnak, lehentasunezkoak izango dira Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat.

La ciudadanía de Gipuzkoa no es sujeto activo y participativo de las grandes políticas que diseñan o desarrollan las instituciones, obviando o en claro contraste con los objetivos y necesidades de la misma. Las mujeres y hombres de Gipuzkoa no entienden porqué las trabajadoras y trabajadores tienen que pagar las consecuencias no de una crisis económica que no han generado. La ciudadanía de Gipuzkoa no comprende como todavía hay partidos que rechazan un diálogo político inclusivo.

Energia handia biltzen duen lurraldea da Gipuzkoa, bertako gizon eta emakumeek energia handia sortzeko gaitasuna dugulako, horrela erakutsi izan dugu.

Energia hau guztia, ordea, bahitua dago, egun bizi dugun testuinguru politiko, ekonomiko eta sozial nahasi, kontraesankor eta kezkarrian.

Guk badugu gipuzkoarentzat, Gipuzkoako emakume eta gizonentzat, gure proiektu handia. Gipuzkoako Foru Aldundiaren politiken lehen mailako helburuen artean pertsonak jarriko dituen proiektu handia.

Ipar orratz horrekin, Gipuzkoako Ahaldu Nagusi izanik lehentasunezko lau ardatz garatuko ditut:

- 1. Bakea, normalizazioa eta eskubide zibil eta politiko guztiak onartuak izango diren egoera baten eraikuntza sustatzea Gipuzkoako Foru Aldunditik.**
- 2. Krisi ekonomikoari irtenbide soziala ematea, gure aldatzea eta ongizatea bermatze aldera.**
- 3. Emakume eta gizonen berdintasunerako politikak abiaraztea.**
- 4. Gipuzkoako herritarrengana demokrazia zabaltzea, Gipuzkoako instituzioak irekitzea eta honetarako herritarren parte hartzea instituzioetan bermatzea.**

Lau ardatz hauen garapen eta inplementazioak gure lurraldearen garapen integralean dinamizazio papera jokatzea du helburu. Gure herrialdeak, Gipuzkoak, ezinbesteko du aipaturiko erronkei azkar baina ongi erantzutea.

Gipuzkoarako beraz proiektu handia daukagu. Porlanez egingo ez dugun egitasmoa da gurea. Herrialdeko gizon eta emakumeak abiapuntu eta helburu dituen. Gipuzkoaren errealitate politiko, sozial, kultural eta ekonomikoa hurrengo lau urteetan eraldatu duena. Gipuzkoan garai berri bati ateak irekiko dizkiona.

Ondorengo lerroetan, politika hauek modu zehatzagoan garatu nahi ditut:

Gatazkaren behin betiko konponbidea.

Ahaldu Nagusi gisa Gipuzkoako Foru Aldundiak, BILDUren hautetsi guztiek bezala, gatazkaren behin betiko gainditzearen aldeko apustua irmoa egiten dugu.

Horrenbeste urtez bizirik dirauen eta bizi dugun gatazka politikoari irtenbidea eman eta denok irabazten aterako garen konponbideari bide ematea lehentasunezkoa izango da BILDUK gobernatuko duen Foru Aldundian.

Hori baita gure printzipioa. Guztiok irabazten aterako garen konponbide bat eraiki nahi dugu.

Gatazkaren konponbidea, gatazkaren gainditzea, euskal herritar eta gipuzkoar guztien proiektu komuna da. Inolaz ere ezin baita gatazkarik konpondu, inoren aurka eraikitzen diren estrategiak aplikatzearen ondorioz.

En muchas ocasiones en este país se ha convertido en objetivo derrotar al rival que tenías al lado. De este modo, al final, hemos acabado perdiendo todas y todos. Lo que queremos construir es una solución política en la que cada una de las partes gane, porque así, en nuestro pueblo, ganaremos todas y todos.

Gatazkaren konponbideak, beraz, ezin du izan alderdi politiko edo eragile politiko zehatz bakar baten ardura edo bere ikono politikoa. Euskal Herrian bizi dugun gatazkaren konponbidea, eta batez ere egun mahai gainean dauden, guztion begien aurrean dauden, baldintzak nolakoak diren kontuan harturik guztion ardura izateko deialdia luzatu nahi dut hemendik.

Gipuzkoako Foru Aldunditik, gatazkaren konponbidea lurralde honetako herritar guztien elkargune izateko planteamenduak luzatuko ditut. Gatazkaren konponbiderako saiakera herrialde honetan, barnebiltzailea eta kolektiboa izan dadin.

El conflicto que todavía no se ha cerrado en Euskal Herria tiene muchas caras. Cada una de esas caras responde una realidad específica. Para abrir las puertas del futuro a Euskal Herria y Gipuzkoa, tenemos que trabajar con estas múltiples caras. Sin duda, tenemos que hacer frente al sufrimiento de todas las víctimas que ha generado el conflicto. Del mismo modo, en este nuevo ciclo, tendremos que abordar la cuestión de los presos.

Herritar guztien eskubide zibil eta politikoen errespetua eskuratzeko garaia ere bada honakoa.

Gipuzkoako herritarrok, edozein delarik ere norberaren iritzia, gure iritzia modu askean emateko aukera izan behar dugu. Horregatik edozein biolentzia, mehatxu, presio, jazarpen, atxiloketa eta torturaren desagerpenerako lan egingo dut.

Elkarrizketa da eginkizun honetarako metodo bakar eta eraginkorra. Ezberdinen arteko elkarrizketak egun ditugun distantziak gaindituko ditu eta urruntasunak sortzen dituen mesfidantza eta elkar ezagupen falta gainditzeko bitarteko bakarra da.

Era berean, unea iritsita, alderdi politikoen artean gauzatu beharko da, elkarrizketaren bidez, Euskal Herriaren errealitate nazionalaren eta erabakitze ahalmenaren onarpenari buruzko eztabaida. Euskal Herrian edozein egitasmo politiko, independentzia barne, herritarren gehiengoaren babesaz aukeratu ahal izateko behar diren aldaketak juridiko politikoak burutu behar dira.

Halaber, urte luzeetako gatazkak utzitako ondorioei buruz, ETA eta gobernuari dagokie elkarrizketaren bidez, gatazkaren ondorioak behin betiko gainditzeko urratsak ematea.

Aurreko atal batean esan dudan bezala, arduraz jokatzeko garaia da. Horrela jokatzera deitu nahi ditut Gipuzkoako alderdi politiko guztiak. Baina ez soilik alderdi politikoak, Gipuzkoako eragileei ere deialdi orokor bat luzatu nahi diet. Hauei guztiei, protagonista bihurtzeko deia luzatu nahi diet. Erantzukizun kolektiborako unea da. Guztion esku baitago, bakoitzak bere eremutik, ahal duen neurrian gatazkari behin betiko irtenbidea emateko bere ekarria egitea. Epe motzeko eta iraganeko estrategiak gainditzeko deia luzatu nahi dut berriz ere. Konponbideari ekarpenik egiten ez diotelako eta konponbiderako guztion ekarpena ezinbestekoa delako.

krisi ekonomikoaren irtenbide soziala ematea, gure aldatzea eta ongizatea bermatzea.

Mundu mailan bizi den eta Gipuzkoan bere sustraiak bota dituen krisi ekonomikoak, Gipuzkoako gizartearen pobretze orokor bat ekarri du. Krisi ekonomikoaren eragina herritarrek ordaintzen dute, krisi ekonomikoaren lehen mailako ondorio gisa, bizi kalitatearen txikitzea den heinean. Krisia mundu mailakoa da, zalantzarik ez daukagu, baina Gipuzkoak badauka ere bere errealitate propioa.

46.000 langabetu baino gehiago ditugu Gipuzkoan. Gure herrialdean krisi ekonomikoak uzten digun argazkiaren atalik gordinena dudarik gabe. Langabezian dauden 46.000 emakume eta gizonen irteera bat ematea da gure lehen tasuna. Langileriaren eskubideen mantenua eta garapena bermatzea da, bestetik, gure erronketako bat.

Gipuzkoara etorri berri diren edota azken urteetan etorri diren migranteek aipamen berezia eskatzen dute. Bizi baldintza duinak eskuratu eta integrazio sozioekonomiko, kultural eta linguistikoak babes ekonomiko bat eskatzen dute.

El necesario desarrollo del Estado del Bienestar no debe ser afrontado como una factura a la que debe hacer frente la administración. El Estado del Bienestar es una inversión a futuro, una base fundamental para construir la Gipuzkoa del futuro. La inversión más eficaz para el desarrollo de nuestro territorio. Porque es garantía de bienestar, derechos y libertad real para las mujeres y hombres de Gipuzkoa.

Krisi ekonomikotik atera eta Ongizate Estatua mantentzearen arteko dikotomia gainditu nahi dugu beraz. Ekuazio honekin ez gatoz bat. Etorkizuna, etorkizuneko Gipuzkoa, gipuzkoarren eskubide sozialak bermatuz eraikiko baita edo historian atzera egitea izango da. Gipuzkoako gizon eta emakumeak baitira lurralde honen garapenerako motor eta protagonista nagusiak.

Sustatu beharreko politiken artean berrikuntzarena dago. Lana eta aberastasuna sortzeko esparruak diren heinean estrategikoa den eremua da honakoa.

Finantza merkatuen diru gose ase ezinaren aurrean, instituzioak, herritarren ordezkari eta zerbitzura beharko luketen instituzioak egoerari erantzuteko tresna gabe eta borondate eskasarekin agertu dira. Herritarrak ezin dira izan, ez dira, kontsumitzea beste funtziorik ez duten subjektu pasiboak.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako kutxen etorkizuna eztabaidan den une honetan, Gipuzkoako Ahaldun Nagusia gisa fusioaren aldeko nire posizioarekin batera, egungo egitasmoak gordetzen duen bankarizazioaren aurkakoa agertuko naiz. Euskal Herriaren finantza egitura publiko berriaren kimua izan baitaiteke. Gipuzkoaren garapen sozial eta ekonomikorako ezinbestekoa da, kutzak bere funtzio soziala mantendu eta garatzea.

Gipuzkoaren garapen eta diseinu ekonomikoa, Gipuzkoan eginkizun honetan eragile aktibo den orori ireki behar zaion eztabaida da. Orain artean Gipuzkoaren garapen eta diseinu ekonomikoaren eztabaida marko murriz batean eman da. Gipuzkoan dauden ikuspegi ezberdin guztiak barnebiltzeko gaitasunik ez duen marko batean. Eztabaida ireki egin behar da. Gipuzkoaren etorkizun ekonomikoak protagonista askoren beharra baitauka. Hori izango da Gipuzkoako Ahaldu Nagusi gisa garatuko dudan lerroetako bat. Gipuzkoaren etorkizun ekonomikoaren aktibazioa, eginkizun horretan protagonista diren guztiei beren erantzukizuna eta aukera emanaz.

Gipuzkoako herritarrak dira gure proiektu handia. Gipuzkoako emakume eta gizonak jarri nahi ditugu Gipuzkoako Foru Aldundiaren politiken lehendabiziko helmuga gisa. Horretarako ezinbestekoa da, krisi ekonomikotik ateratzeaz batera, aterabidea ongizate estatuaren mantenu eta garapenarekin egitea.

Berdintasuna.

Protagonista diren emakume eta gizonen osaturiko Gipuzkoa batean, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna ezinbesteko erronka da.

Emakumeak mendeetako borrokaren bidez bere eskubideen errekonozimendu eta gauzapenean urratsak eman ditu. Egun hala ere egiturazkoak diren ezberdintasunek darraite. Egiturazko ezberdintasun hauek, emakumeen bizi egitasmoan ,eta ondorioz emakumeek egitasmo kolektiboari eskaintzeko dituzten aukeretan ere, eragin nabarmena daukate.

Egiturazko ezberdintasunak gainditzea epe luzearako lana izanik, aitzakiarik ez dago jadanik urrats sakonak emateko.

Urrats sakonak eman nahi ditu eremu honetan Ahaldu Nagusi izan nahi dudan Gipuzkoako Foru Aldundiak. Foru Aldundia bere osotasunean inplikatu duten politika transbertsalen inplementazioarekin.

Demokraziaren zabalpena. Parte hartzea.

Gipuzkoako Foru Aldundian, herritarrak izango dira protagonista nagusiak. Hori izango da BILDUK osatuko duen Gipuzkoako Foru Aldundiko gobernuaren beste erronka nagusietako bat.

BILDUK gobernatuko duen Gipuzkoako Foru Aldundia, herrialdeko emakume eta gizonak gure lurraldeko eztabaida eta politika nagusietan protagonista bilakatzeko helburua eta erronka nagusiarekin arituko da.

Instituzioa irekiko dugu, bai. Hori ere egingo dugu.

Urrats bat gehiago eman nahi dugu, ordea. Jada ez dira egongo soilik politikariei dagozkien eztabaida garrantzitsuak. Gipuzkoan osatu nahi dugun Foru Aldundiak, Gipuzkoar herritarrei dagozkien eztabaidak herritarrekin partekatu nahi ditu. Demokrazia zabaltzea. Demokrazia, lau urtean behin bozkatzea baino ariketa aberatsagoa baita.

Gure herrialdeko gizon eta emakume guztioi dagozkigun eztabaidak egon

badaude. Guztioi dagozkigun erabakiak ere egon badaude. Gipuzkoako herritarrek hauetan parte hartzeko mekanismoak sortuko ditugun Foru Aldunditik.

Gipuzkoako herritarrek herrialdearen eztabaida sozial eta politikoetan parte hartzea, egin dezakegun inbertsiorik onena da. Gipuzkoaren etorkizuneko proiektua herritar guztiekin partekatuz antolatuko baita.

Etorkizuna.

Aipatu ditudan lanerako lau lerro hauek, Gipuzkoan etorkizunari ateak irekitzeko mahai gainean jarriko ditugun erronka nagusiak dira.

Hauek dira, Gipuzkoako energiak askatu eta herrialdeko gizon eta emakumeen artean sinergiak askatzeko, etorkizunera urratsak emateko, ezinbesteko erronkak.

Honela marraztu nahi dut etorkizuna Gipuzkoako Ahaldun Nagusi gisa. Gipuzkoar emakume eta gizon aske eta protagonistez osaturiko jendarte batean, gure herrialdearen, Gipuzkoaren langintza kolektiboan.

Hori izango da nire erronka nagusia hurrengo lau urteetan.

GIPUZKOA ERAIKITZEKO GOBERNU POLITIKAK

Gipuzkoa eraikitzeke politikak.

Gipuzkoako Ahaldun Nagusi gisa, Gipuzkoarako gobernu egitasmo oso bat inplementatu nahi dut.

Pertsonak protagonista nagusi diren lurraldean, Gipuzkoako gizon emakumeen indarrak eta energiak askatzea eta sinergiak askatzea erronka nagusi gisa jarri dugularik, herrialde hau garatzeko politikak aplikatu beharko dira Gipuzkoako Foru Aldunditik.

Euskal Herriaren eraikuntzan protagonista den Gipuzkoa euskaldun, ingurumenarekiko orekan dagoen eta emakume zein gizon askez osaturiko Gipuzkoa dugu buruan.

Politika fiskala.

Gure lurraldean sistema fiskalari dagokionez, erakunde publiko, alderdi zein

gizartean gauden era guztietako eragileek kezka dugu, injustua dela, aberastasunaren banaketaren funtzioari muzin egiten diola, minimoki ere progresiboa ez dela eta Gipuzkoako jendarteak behar dituen zerbitzuei behar bezalako prestazioak ez dizkiela eskura jartzen. Beraz, tesi kontsentsu bat dela ere esan dezaket. Hedabideetatik lor dezakegun informazioa besterik ez dugu entzun, irakurri edo ikusi behar gabezi honen inguruko iritziak jakiteko.

Es por ello que se hace precisa una intervención seria y decidida en esta materia, y así durante esta legislatura, más pronto que tarde mi gobierno comparecerá ante esta cámara con los correspondientes proyectos de norma foral sobre la materia.

Nuestro modelo responderá al doble objetivo ya enunciado de cumplir las exigencias de justicia en materia de progresividad y redistribución, por un lado y por el otro al objetivo de tender a una consolidación fiscal por la vía del ingreso, al hacer más eficaz el sistema, y más justo, sin necesidad de recortar derechos a la ciudadanía, ni recortar el gasto, sin perjuicio de la racionalización del gasto corriente a través de una normalización de la estructura administrativa.

Gizarte zerbitzuak.

Gipuzkoako gizon eta emakumeen ongizatea helburua izango du Ahdun Nagusi nauen Foru Aldundiak.

Gero eta babes sozial txikiagoa daukan gure lurralde honetan. Krisi ekonomikoaren aitzakipean Gipuzkoako eta Euskal Herriko jendarte sektore zabalen babes soziala mugatzen ari denean, ongizatearen estatua bera zalantzan jartzen ari den honetan, egoeraren bilakaera honek gure lurraldearen eta bertako emakume zein gizonen independentzia pertsonala eta beraz proiektu pertsonal eta kolektiboak garatzeko baldintzak mugatzen ditu.

Gure herrialdearen etorkizuna baldintzatu eta mugatzen duen errealitate baten aurrean aurkitzen gara. Milaka eta milaka gipuzkoar lan merkatutik eta kasu askotan babes sozialerako sistematik kanporatua izan direnean, gure lurraldearen etorkizun kolektiboaren langintzara ekarria egiteko egiturazko ezintasun batean aurkitzen dira.

Eskubide subjektibo perfektu gisa antolatutako gizarte zerbitzuen alde agertu gara eta, beraz, administrazioarentzako betebeharrak direla ulertzen dugu. Norabide horretan urratsak emango ditugu, Gizarte Zerbitzu Publikoen Euskal Sistema sortzearen alde egingo dugu. Printzipio nagusi gisa, foru zerbitzu sozialen kudeaketa publikoa izango da, ordainketa partekaturik gabekoa, eta dauden beharrei erantzuteko aurrekontu nahikoa izango duena.

Oinarrizko errenta baten ezarpenak Gipuzkoako emakume eta gizonen bizi kalitatea hobetzearekin batera, gure herritarren dinamismo sozial eta ekonomikorako tresna izan nahi du.

Azpiegiturak, lurralde antolaketa eta ingurumena.

Adreiluaren eta eraikuntzaren politika neurrigabeak nora eramán gaituen

jakin badakigu. Egundaino garatu den politika ekonomikoak, ekonomiaren kolapsoa eta krisi ekonomikoan sakon ondoratzen eraman gaitu. Gipuzkoan bada egun ere bide berdinean jarraitzeko tentaldirik. Gipuzkoako etorkizuna ez da porlanarekin eraikitzen, gure herrialdeko emakume eta gizonen dinamismo eta ekinbidearekin, pertsonen protagonismoa emanez baizik.

Iraunkorra den Gipuzkoa bat bultzatuko dugu, ingurumenarekin orekatua eta Gipuzkoako herritarren osasuna bermatuko duena. Gipuzkoako emakume eta gizonen gure inguruarekin orekan bizitzea beste aukera arrazionalik ez dugula jabetzetik abiatuz.

Ukatu egin nahi dugu beraz abiapuntutik bertatik, definizioz eta modu absolutu batean azpiegitura erraldoiak garapenerako estrategikoak direnik. Ukatu egin nahi dugu, era berean, definizioz azpiegitura handiak eta hauetan burutu beharreko inbertsio publikoak ekonomiaren dinamizaziorako motorra direnik. Hor daukagu, inguruko estatuen esperientzia.

Azpiegituren eraikuntza beharrezkoa da hala ere gure lurraldearen garapenerako, garapen orekatua helburu duen Gipuzkoaren eraikuntzarako. Dударik gabe esaten dugu gainera.

Ez ditugu bloke honetan kokatzen kanpo kaia eta Zubietako errauskailua. Gipuzkoarren iritzia kontuan hartu gabe, egin nahi izan diren bi azpiegituren kasua da honakoa.

Pasaiako kanpo kaiaren egitasmoak Gipuzkoako jendarte sektore zabalen, eragile sozial eta politikoen aurkakotasuna jaso du. Gure ustez, amortizatu dagoen eta egun izan dituen gora behera guztien ondorioz sinesgarritasunik ez duen egitasmoa da. Gipuzkoarren gehiengoak egitasmo hori bertan behera uzteko eskaria egiten du.

Era berean, Gipuzkoako Ahaldu Nagusi gisa Zubietako errauskailuaren moratoria proposatuko dut. Gipuzkoan zaborren politikaren inguruko eztabaida zabal eta irekia sustatzeko asmoarekin. Gipuzkoan zaborren inguruan eman beharreko eztabaida horretan, birziklatzearen garrantzia abiapuntu izanik, zaborren kudeaketarako eredu ezberdinak eztabaidatu eta gure lurraldea osatzen duten errealitate ezberdin eta bakoitzera egokituko diren proposamenak landu nahi ditugu.

BILDUK gobernatu nahi duen Gipuzkoako Foru Aldundiak gure lurraldearen garapen eredu birpentsatzeko eztabaida bultzatuko du, eztabaida hau gizarte osora zabalduz. Garapen eredu batek, edozeinek azpiegiturak behar ditu. Honela, tren sozialaren sarea bultzatuko dugu, merkantzien eta bidaiarien mugikortasunari aukera emango dion sarea bultzatuz. Europa mailako tren sarearekin konexioa burutzeko eta distantzia motzak lotzeko inbertsioa handituz.

Garraio politikarekin jarraituz, maiztasun handiagoko garraio publikoaren alde egingo du BILDUK gobernatuko duen Foru Aldundiak. Iristeko erraza, intermodala eta malgua den garraio publiko bat bultzatuz. Beharrak aseta dituen errepide nagusien sareari lehentasuna eman ordez, bigarren mailako sarea egokitzeari eta mantentzeari eman nahi diogu lehentasuna. Garraio

politikaren azken atalari dagokionean garraio txartel bakarria bultzatuko dugu Hego Euskal Herriko garraio publiko guztientzat.

Azpiegiturak eta lurralde antolaketarekin bukatzeko, Pasaiako barne badiaren berreskuratzeaz hitz egin nahi dut. Atal honetan azkenerako utzi dudana puntua da hau, garrantzi berezia emateko helburuarekin utzi dudana gainera. Gipuzkoako Ahaldu Nagusi izanda, Pasaiako barne badiaren berreskurapena nire lehentasunetako bat izango da. Horretarako inguruko udalek egindako proposamenak kontuan hartuz eta gure herrialdearentzat garrantzi estrategikoa duen ingurune oso bat berreskuratzea Foru Aldundiaren agendan egongo da.

Euskara.

Euskara gure nazioa den Euskal Herriaren hizkuntza da. Euskarari egiten diogun aitortza honetatik abiatuz, Gipuzkoan euskararen normalizazio eta berreskurapen osorako politikak aplikatu nahi ditut Gipuzkoako Foru Aldunditik.

Euskaldunok, euskal hiztunok, protagonista izan nahi dugu ere Euskal Herrian zabaldu den garai berrian. Euskarak jasan duen bazterketa behin betiko gainditu eta euskararen erabilera urratsak emanez eta gure hizkuntzaren presentzia kalean gero eta nabarmenagoa eta normalagoa eginez.

Gipuzkoako Ahaldu Nagusi gisa eta Foru Aldunditik, euskararen berreskurapen eta normalizaziorako politikak aplikatuko ditut. Foru Aldundiaren motor papera indartuz.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren kanpo zein barne jardueran euskara lehen mailako hizkuntza bilakatzeko apustu egin nahi dugu. Eredugarri izan. Foru Aldundiko langileak euskararen aldeko protagonista bilakatuz. Helburu hau erdiesteko neurri sorta bat planteatuko dugu.

Era berean, euskararen berreskurapen eta normalizazioari bultzada egiteko neurriak hartu nahi ditut Foru Aldunditik. Honela, Gipuzkoako herritarren euskalduntze eta alfabetatzea baliabide ekonomiko babestuko du BILDUK gobernaturako duen Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Gipuzkoako emakume eta gizonak gara euskararen berreskurapenaren protagonista nagusiak. Euskararen erabilpenean urratsak ematea Ahaldu Nagusi izan nahi dudana Foru Aldundiaren xede izango da, honetarako, euskararen erabilpenean urratsak emateko bitartekoak emanez.

Gipuzkoara etorri diren migranteekin batera euskalduntze eta alfabetatze politikak burutzea ezinbestekoa dela uste dut. Gipuzkoara iritsi berri direnean, Euskal Herriaren kultura eta hizkuntzaren berri eman eta errealitate soziokulturalean txertatzeko aukera parez pare ireki behar baitaie. Ildo hori bultzatu nahi dut Ahaldu Nagusia bezala.

Euskal kultura.

Euskal kultura Gipuzkoako emakume eta gizonen Euskal Herriko beste lurraldeetako herritarrekin batera, burutzen dugun sorkuntza lanaren sintesia

da.

Euskal kulturaren eta berau sustatzeko Foru Aldundiko politiken protagonista Gipuzkoako sortzaileak, sorkuntzan diharduten emakume eta gizonak bihurtu nahi ditugu.

Euskal kulturak badauka gure lurraldean gainera, nire ustez indartu behar den sorkuntza eta produkzio industria bat. Gipuzkoan euskal kultura asko eta ona egiten da. Gipuzkoa eremu honetan ere sortzailea da. Gipuzkoako euskal kulturaren industria estrategikoa dela deritzot. Berau indartzea eta laguntzea izango da Foru Aldunditik garatu beharreko politika ezberdinen helburu bat.

Tabakaleraren proiektuak aipamen berezi bat merezi du atal honetan. Azpiegitura egon badago, baina zertarako erabili ez dago oraindik orain argi. BILDUK gobernaturiko duen Foru Aldundiaren proposamena argia da, Tabakalerak euskal kulturaren erakuslehoa izan behar du. Horren alde apustu tinkoa egingo dugu.

Gazteria.

Orainartean gure gazteek etxebizitza duin bat eskuratzeko aukerarik ez dute izan, etorkizun laboralean argirik ez gazteentzat, ikasketak aurrera eraman ahal izateko bermerik ez eta kontsumora bideratutako aisialdi ereduak kontsumitzera behartuta dauzkagu gazteak. Askatasunez adierazteko eta antolatze eskubideak ere bermatuak ez dituzte gipuzkoako gazteak

Instituzioek gazteriaren parte hartze zuzena ahalbideratuz eta gazteen eskubideak oinarri bezala hartuz, gazteriaren arazoei aterabidea emango dien gazte plan integralak diseinatu eta praktikara eraman behar ditu eta hori da neure arduratik bultzatuko dudana. Gazte planak, instituzioek martxan jarritako egitasmoak izan behar dira. Gazteriak, bizi dituen arazo konkretuei aterabidea emateko, instituzioek eraturako baina gazteriak berak gauzaturiko tresnak izan behar dira.

Horregatik, Gazteen hitza eta erabakia defendatuko ditugu. Gazteek esparru instituzionaletan parte hartzeko eskubidea dute eta BILDUK eskubide hori bermatuko die.

Gazteek egun bizi duten egoera larriari aurre egiteko, beharrezkoa da gazteak esplotatzeko sortutako mekanismoak desegitea; besteak beste, ETTak/ABLEak (Aldi Baterako Laneko Enpresak), praktiketako kontratuak eta proba-epeak eta langintza horretan BILDU aitzindaria izango da.

Kirola

Jendartearen beste arlo guztietan bezala, herritarrek kirolaren inguruko dinamika politikoak normaltasunez ikustea ahalbideratuko dugu. Kirolari eta zaletuen eskubideen defentsa eta Kirolari eta zaletuen inplikazioa behar dugu.

gure kirola maila gorenera eramateko.

Euskal herritarrek euskal selekzio nazional eta ofizialen aldeko jarrera aktiboa har dezaten bultzatuko dugu.

Euskal Herri osoko kirol eragileak dinamika komunetan inplikatuak dituzten nazio proiektuak sustatuko ditugu. Euskal Herri mailako egiturak sortu behar dira, "Kirol Federazio Nazionalak" lehentasunez.

Euskal kirolen sustapenari lehentasuna emango diogu. Halaber, ugari dira Euskal Herrian tradizio luzez praktikatu diren jokoak eta gaur galdua edo galbidean direnak. Hauen sustapena ere garrantzi handiko zeregintzat hartzen dugu.

Foru Aldundiaren kudeaketa eredua.

Gardentasuna izango da antolatuko dugun Foru Aldundiaren adierazlerik nagusia. Gipuzkoako herritarrei Foru Aldundiko ateak ireki nahi dizkiegu, Gipuzkoako emakume eta gizonen egitasmo pertsonal eta kolektiboak garatzeko tresna bilakatuz.

Horretarako herritarrekin egingo dugu lan. Gipuzkoako herritar sektore, herri eragile, enpresa, kirol eta kultur talde zein bestelako taldeekin eskuz esku lan egiteko gogo biziz baikaude. Ez gatoz Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitzetako mahaien aurrean eseri eta zain gelditzeko bokazioarekin. Gure lan eremua Gipuzkoako herriak, lantegiak, ikastetxe, jubilatuetxe, unibertsitate eta kaleak dira. Gure lankideak Gipuzkoako herritarrak.

Udalak eta mankomunitateak dira gure hurrengo lan esparrua nagusia. Gipuzkoako udalekin eskuz esku lan egin nahi dugu. Udalek planteatzen dituzten beharrak entzun eta hauei erantzuna lehentasuna izango da niretzat Gipuzkoako Ahaldu Nagusi bezala. Udalak dira herritarrengandik hurbilen dauden instituzioak. Herritarren beharrak modu zuzenean jasotzen dituztenak eta beraz hauei erantzuna ehuneko handi batean udalen bidez egin behar da. Horretarako Gipuzkoako udalek dituzten behar ekonomikoak eta administratiboak erantzun egin behar zaie.

Azkenik, baina ez garrantzi gutxiago dutelako, Gipuzkoako Batzar Nagusiak ezinbesteko marko bilakatzen dira Ahaldu Nagusi gisa burutu nahi dituzten politikak garatu ahal izateko. Hurrengo urteetan Gipuzkoako Batzar Nagusietan herrialdearen etorkizunari buruzko eztabaida sakonak burutuko dira. Bertan herrialdean dauden ikusmolde ezberdinak elkar gurutzatuko dira. Denon ardura izango da, BILDUK ardura berezi bat dauka langintza horretan. Ikuspegi ezberdinak jostea eta ezberdinen arteko akordioak erdiesteko esfortzua egitea lehendabiziko pertsonan hartu nahi dudana da.

Gipuzkoako Foru Aldundian egun dauden departamenduen jaitsiera planteatzen dugu. Funtzionamendu eraginkor eta efiziente bat eskuratzeko asmoz. Bere burua loditzen duen administrazioa baino, herritarren beharrak asetzen dituen udala da gure helburua. Ipar orratz horri jarraituko diogu.

GOBERNAGARRITASUNA

Gipuzkoa gobernatzeko jendea daukagu, jende prestatua eta oso ona. Ideiak

dauzkagu, proposamenak eta programa. Prest gaude Gipuzkoa gobernatzeko.

Ilusioa eta itxaropena sumatzen dugu Gipuzkoako kaleetan. Ilusio eta itxaropen horren eroale izan nahi dugu Gipuzkoako Foru Aldunditik. Horretarako osatuko dugun gobernu ekipoa lanerako prestatua egongo da, esperientzia nahikoarekin, baina batez ere elkarlanerako gaitasuna izango du. Entzun egin behar dugu. Hori izango da lanerako gure printzipioetako bat. Herritarrek, herri eragileek edota eragile sozial ekonomiko eta kulturalak esateko dutena entzun egingo dugu. Entzun eta kontuan hartu.

Gipuzkoako Foru Aldundia ez da izango Gipuzkoako errealitatetik deskonektatua dagoen instituzio bat. Gipuzkoako errealitatean buru belarri sartuko da.

Paktu eta aliantzen gure lehentasunezko eremua herritarrak, herri eragileak eta era guztietako eragile sozial eta kulturalak izango dira. Gipuzkoako Ahaldu Nagusia gisa, nire eginbehar nagusia Gipuzkoako jendartearen iritzia jaso eta berau kontuan hartu, landu eta bideratzea izango da.

Maiatzaren 22ko udal eta Foru Hauteskundeetara BILDUK programa bat aurkeztu du. 120.000 bozka baino gehiago jaso dituen Gipuzkoarako programa. Hauteskunde hauetan argiki babes gehien jaso duen programa. Hor kokatzen da gure Foru Aldundiko gobernu programaren erreferentzia nagusia. BILDUK aurkeztu duen programaren garapenean buru-belarri aritu nahi dugu lanean, bai Gipuzkoako Foru Aldunditik, baita Batzar Nagusietatik ere. Batzar Nagusi hauek eztabaida eta iritzi politiko ezberdinen kontrasterako garrantzi handikoa eremua izango baitira.

Ahaldu Nagusia izango nauen Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako alderdi politiko guztiekin, Batzar Nagusi hauetan ordezkatuak dauden alderdi politiko guztiekin, eskuz eske burutu nahi du bere lana.

Maiatzaren 22ko Foru eta Udal hauteskundeen ondorengo egunetatik bilkura ezberdinak egin ditugu alderdi ezberdinen artean. Bilkura horien ondotik, guztiok onartu dugu elkartrukatu ditugun programen artean ezberdintasun handiak zeudela. Lanerako eta akordioak erdiesteko aukerak ere badaude ordea. Hori ere begi bistan gelditu da bilkura horietan. Nahiago dut, elkartzen gaituenarekin gelditu, ezberdintzen gaituenean sakontzea baino.

BILDUK gobernatuko duen Gipuzkoako Foru Aldunditik PSErekin eta EAJ-PNVrekin hainbat gaitan akordio zehatzak lortzeko aukerak ikusten ditut. Horretan joango da nire esfortzu eta dedikazioaren parte bat. La Diputación Foral que gobernará Bildu podrá lograr acuerdos puntuales y concreto con el PSE y el PNV. A ello dedicaré parte de mis esfuerzos.

Gipuzkoako bigarren indar bezala, EAJ-PNVrekin akordioetara iristeko harreman preferentziala lantzeko borondate osoa daukat. Milaka bozka ordezkatzeko dituen alderdia izanik, Gipuzkoako gobernagarritasunean oso garrantzitsua den aktorea izan da EAJ-PNV.

Atal honekin bukatzeko, tribuna honetatik ere Aralarreko ordezkariari zuzendu nahi natzaio, ezkerreko, abertzale eta independentistek Gipuzkoako Foru Aldundian antolatu nahi dugun gobernuan parte hartzeko gonbitea egiteko.

Hau izan da gure eskaintza eta Gipuzkoako jendartearen parte oso handi batek egin bezala, aldaketaren garaira gehitzeko eskatu nahi dizuet.

Mila esker.